

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

TELEFONIA

Enkriptatutako SMSak

ESKUKO TELEFONO guztietatik mezu enkriptatuak bidaltzeko aukera dago jadanik, beti ere mezua bidaltzen duenak zein jasotzen duenak, sistema berdina erabili ez ezik, enkriptazio-kode bera baldin badute.

Simore izeneko enpresa SIM txartel bereziak erabiltzen hasi zen orain dela urte batzuk. Lehenengo berezitasuna txartel bikoitza da: bi txartel jartzen dira normalean bakarria sartzen dugun lekuan, eta horrela bi linea eskura izateko aukera du erabiltzaileak. Batetik bestera nahi bezala, eskuz edota automatikoki, igaro daiteke.

Joan den urtearen amaieran Simorek *Gold* bertsioa zabaldu zuen European. Hainbat sistemarekin bateragarria da, eta



Eskuko telefono guztietatik SMS enkriptatuak bidaltzeko aukera zabaldu du Simore enpresaren sistema berriak.

O s a s u n a

JABIER AGIRRE

Elgorriak gora egin du European

2008AN 1.300 ELGORRI KASU erregistratu dira Suitzan, Erresuma Batuan, Frantziako eta Espainiako Estatuetan, Danimarkan, Alemanian, Austrian eta Norvegian. Apirilaren 7ra arte 75 kasu susmagarriren berri eman da Espainiako Estatuan, eta horietatik 40 baieztatu dira gerora. Ia denak Andaluzian eman dira, brote beraren inguruan.

Egoera ez da ustekabekoa izan osasun alorreko agintarientzat. Azken hiru urteotan, elgorri kasuak hamabost aldiz biderkatu dira. Gaitzak 2006an hartu zuten indarra eta 197 kasu erregistratu ziren. Kontuan izan behar da aurreko urtean, 2005ean, hamazazpi gaixo baino ez zirela izan. Iaz ere goranzko joerak jarraitu zuen eta 265 izan ziren kutsatuak. Ondorioz, Espainia kasu gehien eduki duten Europako herrialdeen mailan kokatu zen, aurretik Irlanda, Suitza, Errumania, Erresuma Batua eta Alemania besterik ez zituela.

Sukarra, erupzioak —orban gorrixkak— gorputz osoan, konjuntibitisak... Elgorriaren ohiko sintomak Europa osoan berragertzen hasi dira, medikuek gaitza ia ahaztuta zute-



Txertoari esker ia desagertuta zegoen elgorria, baina itzuli egin da.

nean. Elgorriaren txertoa hazizurrien eta errubeolaren kontrako txertoekin batera ematen da, ziztada bakarrean, txerto hirukoitz birikoa izenez ezagutzen den horretan. Segurua eta eraginkorra da; beraz, nola ulertu gaixotasunak egin duen gorakada? Arrazoiak asko izan daitezke: txertatu gabeko etorkinak lurralde horietara etortzea, albo-ondorioen beldur hiritar batzuek beren seme-alabei txertoak jartzeari uko egitea...

Elgorria oso kutsakorra da. Txertaketa bidez estaldura-mailarik handiena lortu zen urteetan elgorriak ia desagertzearaino egin zuen behera. Baina, aldi berean, gaitzarekin harremanetan egotean biztanlerian eragiten zen immunitate naturala ere jaitsi egin zen. Ondorioz, birusak berriro ere kutsatzeko ahalmena du eta arrisku bilakatu da, batez ere txertatu gabeko hiritar multzoentzat, dela hamabost hilabetetik beherako hautxoak direlako —adin horretara iritsi arte ez zaie txertorik jartzen umeei—, dela gaitza inoiz izan ez duten 25-40 urte bitarteko helduak direlako —umeak zirenean txertorik ere ez zegoen—.

SMS enkriptatuak bidaltzeko aukera eskaini du lehen aldiz. Horretarako, erabiltzaileek enkriptazio-kodea adostu behar dute zortzi zifraکو zebaki baten bidez. Mezu enkriptatua jasozten duen erabiltzaileak esanahirik gabeko ikurrak baino ez ditu ikusiko bere monitorean, eta enkriptazio-kodea sartu arte ez du benetako mezua ikusiko.

Sistemaren arrakastak bultzatuta, Simorenen banatzaile eskusiboa den Stancom-eko zuzendariak, Franck Niewolinski-k, laster gailu interaktibo berria zabalduko dutela iragarri du, baina zertan datzan zehaztu gabe. |

MATERIALEN ZIENTZIA

CO₂ harrapatzeko material berrerabilgarria

AEBETAKO GEORGIAN, Ingeniaritza Kimiko eta Biomolekularreko Christopher Jones irakasleak ikatza kontsumitzen duten tximinia eta zentral elektrikoan CO₂-a kantitate handitan xurga daitekeela iragarri du. Horretarako, gizartean erabiltzen dugun material bat berrerabiltzea proposatu du, baina oraingoz ez du horren izenik eman, CO₂-aren berreskurapenaren inguruan dagoen lehia izugarria baita.

Gaur egun karbono dioxidoa berreskuratzeko erabiltzen diren sistemak oso garestiak dira, eta elektrizitatearen prezioak gora egitea eragiten dute. Aurkikuntza berriari esker, antza, ez da halakorik gertatuko. |



CO₂-a berreskuratzeko gaur egun erabiltzen diren sistemak asko garestitzen dute elektrizitatea.

landareak

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Gero garo



Eskoziako kilt direlakoei kolore emateko erabiltzen da garoa, besteak beste.

DAGOENERAKO, datorkien bolada onari usaina hartua izango diote. Honez gero milaka ehunka hamaika kolonizazio amarru eta azpijoko prest izango dituzte. Gero ere garotik izan dadin.

Bazka ez izateko pozoia garatzeak iraun, bizi eta hedatze bidea eman dio gure garo arruntari, *Pteridium aquilinum*. Lurpean dituen zuztar lodikoteak gizendu eta etengabe luzatu eta luzatu. Zuztarra luzatu eta landare berri bat sortu eta zuztarra luzatu eta landare berri bat sortu... Duela milaka urte bizi zen landare bera da egungoa, berbera, klona. ADN eta adimen bera ditu. Liluragarria da garo honen hazi eta hedatzeko artea. Makulu eran zabaltzen dituen orriaren muturra eta, batik batik, zuztarrarenaren formak zutabe joniarren kapitelen inspirazio iturri omen... Beste erabilera ugarien artean tori bitxia: Eskoziako klanetako gonagai tartanari eta Ipar Ameriketako indioek bere ehunei kolorea emateko, berdea, horia, marroia, beltza... gordinik edo irakinda maneiatzearen arabera.

The Independent egunkariko ingurumen editoreak, Geoffrey Leanek, idatzi duenez, oraintsu argitara eman eta pantailaz pantaila dabiltzan ikerketa baten ondorioak harrigarriak dira, eta zurtu naiz. Harri eta zur. Loreek bere usaina zabaltzeko zailtasun gero eta agerikoagoak dituzte. Loreen usainak harrapatzen duen distantzia ikaragarri moztu du kutsadurak, nonbait.

Naturako prozesu oinarritzkoenak bat, landareen ugalketa, arriskuan omen: intsektuak ezin erakarri, loreak ez du fruiturik emango eta fruiturik gabe gosea datorkigu guri. Ezer txarrik ezean kilometrotik harantz erleek erraz adituko luketen usaina 300 metrora hartu ezinik dabiltzala dio Virginiako Unibertsitatean burututako lanak. Loretzak osatzeko erabiltzen den dragoi-muturra (*Antirrhinum majus*) izan dute gaia. Ez da zaila kontrario gogorrena zein zuten asmatzea: automobilen kea. Harago doa, ordea, kutsaduraren kiratsa. Ameriketan batik batik, baina mundu osoan, ezin konta ahala akabatzen ari diren eultzeak, gizakion elikaduran behar beharrezkoak diren eultzeak, usain-kirats borroka honen ondorioz galtzen ari ote diren ba...

Bolada datorkiela garoei. Ugaltzeko lore beharrik ez hauek...

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa Erremintak Soluzioak Zerbitzuak

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Coop. (ASP)
Industrialdea 1, 20186 Lesarri-Oria
Tel. 941.37.16.48
e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA